




Garraio eta Herri Lan Sailak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2003-2007) onartu zuen 2004ko abenduaren 10ean.

Plan horrek EAEko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2003-2007 aldiko Planean ezarritako helburuekin bat egiten du, eta euskararen erabilera areagotzeko neurriak aurreikusten ditu: besteak beste, hizkuntzen erabilerrako jarraibideak ematen ditu; eremu ezberdinetarako hizkuntza irizpideak ezartzen ditu eta langileen hizkuntza prestakuntza orokorrerako eta bereziturako irizpideak ere ematen ditu.

Plan honek lagunduko du, alde batetik, legediak herritarrei aitortzen dizkien hizkuntza-eskubi-deak gauzatzeko; eta bestetik, sailak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea hobetzen.



Hizkuntzak eta Inmigrazioa aztergai harturik nazioarteko mintegia egin zen otsailaren 8 eta 9an Bilboko Euskalduna Jauregian. Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak UNESCO Etxearen laguntzarekin antolatutako mintegiaren helburu bikoitza izan da. Batetik, Euskal Herrian sortzen ari diren inguru eleanitz berriak bertatik bertara ezagutu nahi izan dira. Bestetik, han-hemendik gure artera etorritakoen bertakotzearen garrantziaz hitz egin da. Ildo horretan, besteak beste, Euskal Herria bizilekutzat hartu duten horiek euskararen mundura hurbildu ahal izateko jorratutako moduak aztertu ziren.

Mintegian zehar, bestalde, Euskal Herrian hizkuntza aniztasuna kudeatzeko balizko neurriak proposatu eta eztabaidatu ziren, hizkuntza gutxitua duten komunitateen esperientziak aztertuz.



Expologua azoka egingo da Madrilaren apirilaren 8tik 10era bitartean. Erakusketaren hemezortzigarren aldia beteko da aurten, ohiko helburua gogoan harturik, hau da, beste hizkuntza batzuk ikasteko bideak jendearen eskuera jartzea. Horrekin batera, hizkuntzen irakaskuntzarako asmatu diren berrikuntza teknologikoak ere erakutsiko dira Expologuan.

Azoka honek, gainera, Hizkuntzari buruzko XVIII. Nazioarteko Biltzarra ere hartuko du bere baitan. Hizkuntzen irakaskuntzan aditu diren hainbat lagun bilduko dira bertara, elebitasunaz gogoeta egiteko eta ingelesak ikastetxeetan duen garrantziari buruz ere jarduteko. Aurreko ekitaldietan bezala, aurten ere izango du bere tokia euskarak, HPSren eskutik.



Dagoeneko euskararen adierazleen berri izan nahi duenak badu nora jo: EASera, hain zuzen. **Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen Sistema (EAS)** aginte publiko, euskararen erabilerraren normalizazio prozesuan diharduten eragile eta organoei, eta hiritarrei oro har, euskararen egoeraz eta Euskal Herrian luze-zabal agertzen duen bilakaeraz informazio zehatza eskuratzeko tresna da. Hizkuntza-adierazleek aintzat hartu beharko dute testuingurua, funtzionamendua, aipatutako hizkuntza-politika eta ekimenen kostuak eta emaitzak, edota halakoen falta. EASEko informazioa eguneratuta dago, beraz, uneoro eskuragarri dauden daturik berrienak eskainiko dira. Baina, sistemaren helburua bikoitza dela kontuan izanik, hots, euskararen egoera eta bilakaera neurtzea, ahal den neurrian aurreko urteetako datuak ere eskainiko dira.

Euskararen adierazleetara jo nahi duenak jo dezala Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren webgunera: www.euskara.euskadi.net/ helbidera.



Nahitaezkoa da euskararen azpiegiturak sendotzea. Bide horretan aspaldi egin ziren lehenengo urratsak. Zorionez, urratutako

bidea ez da alferrikakoa izan eta, horretaz jabeturik, ildo horretan aurrera jarraitzen dute erakunde eta euskararen gizarte eragileek. Horren froga da Bilbon ireki berri den **Euskararen Etxea**, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jauriaritza eta Bilboko Udaren arteko lankidetzari esker sortua.

Lau solairu ere baditu etxeak eta, lehenengoz, Euskararen Interpretazio Zentroa dago. Tren geltoki baten antzera girotuta dago gune hau eta bertan euskarak denboran zehar egin duen bidaia erakusten da, hizkuntzaren historia eta bilakaera azalduz. Bigarren solairuan euskararen Mediategia dago; hemen, orain arte euskaraz ekoiztu diren multimedia produktuak bildu dira. Hirugarren solairuan, Euskal Idazleen Elkarte, Topagunea euskararen federazioa eta Mendebalde Kultura Alkartea ditugu. Laugarrenean, azkenik, Bizkaiko Ikastolen Elkarte.

Berri gehiago www.euskararenetxea.net webgunean edo ondoko posta helbidean: eiz@euskararenetxea.net



Behin baino gehiagotan aipatu dugunez, helduen euskalduntze-alfabetatzearen ikuspegitik etorkinena alor estrategikoa da. Datozen urteetan garapen nabaria izango du. Iaz, etorkinei zuzendutako AISA euskara ikas-materiala aurkeztu zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta HABEK. Bide horretan, **Oinarriko Hiztegia Iruditan** izeneko materiala argitaratu berri dute bi erakundeek. Lan berriak eguneroko bizian ohikoan diren hitzak biltzen ditu euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez, eta hamaika arlotan banaturik: Gure ingurua, Denbora, Natura, Etxea, Giza harremanak, etab.



Eusko Jaurlaritzaren Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2005eko otsailean argitaratutako "Irakurketa ohiturak aisialdian" izeneko txostenaren arabera hauxe da irakurtzean egiten dugun euskararen kontsumoa, EAEn: egunkariaren ohiko irakurleen % 18k normalean euskarazko egunkariak irakurtzen dituzte; liburuen kasuan ehunekoa apur bat jaisten da: liburuen ohiko irakurleen % 15ek euskarazkoak irakurtzen dituzte; bestalde, komikien ohiko irakurleen % 16k euskarazko komikiak irakurtzen dituzte normalean eta, bukatzeko, aldizkariaren ohiko irakurleen % 8k irakurtzen dituzte euskarazko aldizkariak. Kontuan eduki behar da ia ohiko irakurle guztiek gaztelaniaz irakurtzen dutela eta lehen aipatutakoek, gaztelaniaz ez ezik, euskaraz ere bai. Emaiza horiek zehatzago aztertu nahi izanez gero, txosten osoa hemen jaitsi daiteke: http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos.



Laurehun urte dira Migel Cervantesek *Don Quijote de la Mancha* lan handia argitaratu zuenetik. Hainbat ekitaldi antolatu dira munduan zehar laugarren mendeurrena goraki ospatzeko asmotan. Euskarazko letrek ere ez diote hitzordu nagusiari huts egingo eta, honenbestez, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak berrargitaratu egingo du **Don Kijote Mantxa'ko**, Cervantesen obraren euskarazko itzulpena Pedro Berrondo zenak aspaldi egina.


Pedro Berrondo apaizak (Oiartzun, 1919 – Donostia, 2002) egindako lana bi liburukitan kaleratu zen: lehena, 1976an argitaratu zuen Itxaropena argitaletxeak; bigarrena Jose Estornes Lasak egin zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesez, bederzti urte geroago, 1985ean.

Itzulpena zela eta ez zela, lanari ekiteko izan zituen arrazoiak gainean galdetu eta esanahi beteko erantzuna ohi zuen Pedro Berrondok: "Maitasunak barkatzen ez duelako" itzuli zigun *Don Kijote Mantxa'ko*.



Nafarroako ikastolen jai nagusiak, **Nafarroa Oinez**-ek, alegia, 25 urte beteko ditu aurten. Altsa-suko Iñigo Aritza ikastolak antolatuko du 2005eko edizioa *Oinknez!* lemapean. Festa urriari ospatu-ko bada ere, lanak aurreratzen ari dira antolatzailerak. Adibidez, Jose Mari Satrustegiri buruzko liburua argitaratu dute, Euskal Kultur Elkargoaren laguntzaz. Urte askoan Satrustegirekin batera lan egindako bi lagunek ondu dute liburua: Andres Iñigo eta Patxi Salaberri euskaltzainek. Liburuari jarri dioten izenburua ez da debaldetan emana: *Jose Mari Satrustegi. Nafarroako euskararen ikurra*. Liburuaz gain, euskaltzain eta euskaltzale handiari buruzko erakusketa ibiltaria ere prest dute aurtengo Nafarroa Oinez-en antolatzailerak. Erakusketa honek Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Jose Mari Satrustegiren bizitza eta lanen berri gehiago *Bidegileak* bilduman (www.euskara.euskadi.net).



Zubereraren egoera aztertu du berriki Jean-Baptiste Coyos Etchebarnek, Iker Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Guneak. **Batua eta zuberera: euskalki baten dinamika** izeneko azterketan, euskalkiaren barne egitura eta kanpoko bilakaera, hau da, ezagutza eta erabilera, aztertu ditu. Hala ere, 2-16 urte bitartean garatzen den irakaskuntza arautuari heldu dio Coyosek. Ikertzaile honen aburuz, zubererak gero eta mehatxu larriagoi egin behar die aurre eta, beraz, garrantzi handikoa da, lehenik, euskalkiaren ezaugarriak zehaztea; bigarrenik, euskara batuaren eta euskalki nafar-lapurteraren eraginak identifikatzea; eta, hirugarrenik, zubereraren geroa zein izan litekeen asmatzea.

Coyos Etchebarneren ikerketa interesgarri honen berri zehatzago www.erabili.com gunean.



Informatikari Euskaldunen V. Bilkura egingo da apirilaren 22an Donostiako Miramon Digitalekin batera. Bileraren gai nagusia "**Softwaregintzaren erronka berriak**" izango da eta askotariko gaiak landuko dituzte bertan: web zerbitzuak, segurtasuna aplikazio informatikoetan, osagaien bidezko programazioa etab. Gainera, software jabedunetik software libererako bidean dauden arazoak ere jorratuko dituzte mahai-inguru bidez.



Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian. Zer eskubidez ari garen eta zertan diren izeneko lana argitaratu du Paula Kasaresek Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak argitalpenaren 31. zenbakian.

Batetik, Kasares irakasleak Euskal Herrian dugun egoera jurilinguistikoa aztertzen du bertan, eta euskararen status diferentek azaltzen. Bestetik, berriz, errealitate askotariko horren azpian diren onartze eta kuestionamenduak, inertzia eta erresistentziak, jokamolde, joera eta jarrera ezberdinak ere aztertzen ditu. Irakaslearen arabera, gizarte prozesu horietan dago euskaldunen hizkuntza eskubideek dituzten mugak aldatzeko aukera.



Ipuina, POema, MArrazkia eta maMUA (**Ipu-pomamua**) biltzen dituen egitasmoa abiarazi dute Asteasun (Gipuzkoa). Ipuinaren inguruko parkea izango da, ipuinak entzuteko, antzetzeko, irakurtzeko, ikusteko eta bizi izateko gune berezi bat. Aisialdirako eskaintza berezia egiten du, jolasa, sormena eta parte hartzea bultzatzen baititu, eta ikastetxeentzako lanabesa izango da, ipuinak eta narrazioak ulertzeko eta maitatzeko bideak eskainiko dituena.


Gorringo taldearen egitasmoa da, Asteasuko Udalaren laguntza duena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesa.

euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA euskararen BERRIPAPERA

Gaur eta hemen, ahoz ahoko euskarak inoiz izan dituen tresnarik indartsuenak ditu. Horien arteko bat, inongo zalantzarik gabe, **irratia** dugu. Irration artean, Euskadi Irratia eta, maila apalagoan, Euskadi Gaztea dira euskararen plazarik jendetsuenak. Euskal erakundeen ekimenez abian jarritako horiek ez dira bakarrik. Hainbat dira, han eta hemen, gizarte-ekimenaren eskutik jaio eta, egunak joan eta egunak etorri, euskarazko irratigintzari, partez edo osoz, ekiten diotenak. Irration tipologia anitza da. Hona hemen, lau zertzeladatan, horien zer-nolakoa.

Hizkuntzari dagokionez, irradi batzuk euskara hutsez ari dira (Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Arrate Irratia, Bizkaia Irratia, Euskalerrria Irratia, Xorroxin Irratia, ...); beste batzuk, berriz, euskaraz eta gaztelaniaz (Herri Irratia, Segura Irratia). Emisio-esparruari so eginez gero, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea (ia) Euskal Herri osokoak dira; beste batzuk eskualdekoak (Xorroxin Irratia, Arrate Irratia, Gure Irratia, Irulegi Irratia, Xiberoko Boza); badira tokian tokiko izaera dutenak (Arrasate Irratia, Oñati Irratia, Anboto Irratia, ...) ere. Emisio-ordenen kopuruari dagokionez, badira 24 orduz ari direnak eta ordu batzuetan baino jarduten ez dutenak ere. Izaeraren arabera, gutxi batzuk publikoak eta gehienak pribatuak; euskara-mota kontuan, azkenik, batzuek euskara batua darabilte eta beste askok tokian tokiko euskalkia (Xorroxin Irratia, Arrate Irratia, Bizkaia Irratia,...). Irrati gehienak Hegoaldean badira ere, Iparraldean lanean ari diren Gure Irratia, Irulegi Irratia eta Xiberoko Boza kateak oso lan garrantzitsua egiten ari dira.

Hona, labor-labor, euskara hutsez ari diren irradi-kate nagusiak:



Urtarrilaren 13an **Sorne Unzueta** "Utarsus" zenduzen Algortan. 104 urte zituela, gaitzik gabe, zahardadeak jota hil zen euskarazko poesiak 1936ko gerra aurreko olerkarietan bizirik zirauen azkena. 1900eko azaroaren 27an Abandon sortua, Emakume Abertzale Batzako ia zen Espainiako Gerra Zibilaren aurreko urteetan. Oso hizlari sutsu eta arrakastatsua izan zen eta olerkiak ere ondu zituen.



Utarsusen bizitza eta lanen berri zehatza nahi izanez gero, jo *Bidegileak* bildumara (www.euskara.euskara.net/).

Habeiko Mik (1982-1991) *Euskal komiki ahalegi-na* izeneko doktorego-tesia argitaratu berri du Juan Manuel Diaz de Guereñuk. Egileak aldizkariaren ohiko 55 aleetako materiala eta 18 albumetako aztertu du, lanaren emaitzari "txundigarri" iritzi.



Habeiko Mik Eusko Jaurlaritzaren HABE erakundeak jarri zuen abian 1982an, euskara ikasten ari zirentzako tresna didaktiko izan zedin eta, bide batez, euskal komikia indartzeko asmotan.

Irutxuloko Hitza, Donostiako informazioa euskaraz jasotzen duen egunkaria sortu da. Kazeta berriak *Irutxulo* astekariaren lekua hartuko du, hamar urteko ibilbide oparoaren ondoren. Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, *Berria* egunkaria argitaratzen duen Euskarazko Komunikazio Taldeak eta hiriko gizarte eragileek elkarrekin sortutako enpresak kaleratzen du egunkaria.



Irutxuloko Hitza seigarren *Hitza* da, Tolosaldeko, Oarsoaldeko, Lea-Artibaiko, Urola-Kostako eta Goierriko *Hitza*-ren ondotik.



Donostia Ospitaleak "Lehen hitza euskaraz", eta "Nahi baduzu, euskaraz" izeneko kanpaina abiatu berri du. Horren helburu da ospitaleko langileen artean euskararen erabilera sustatzea. Kanpainarekin batera, zuzendaritzak eta euskara batzordeak euskararen aldeko agiria adostu dute bertan ordezkaria duten sindikatu guztietan.



Herri-Ardularitzazko Euskal Aldizkariaren 69. II aleak 2003ko UPV-EHUko Uda Ikastaroetan antolatutako "Hizkuntzen bizikidetasuna aniztasunean" egindako hitaldiak argitaratu ditu

liburu batean. Hainbat lan eta txostenen artean, Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Goenagaren artikulua ageri da, "Hizkuntza erronkak Euskal Autonomia Erkidegoan" izenburupean.

Euskal Herriko egoerari dagozkion lanak ez ezik, Katalunia, Espainiar estatua, Europako Batasuna, Kanada, Suitza eta Bruselako egoerak ere aztergai dira liburuan.

Euskararen erabilerari buruzko irakurketa. Aurrera begirako hausnarketa izeneko artikulua argitaratu dute HPSko Jon Aizpuruak eta Miren Mateok *Bat* soziolinguistika aldizkariaren 53. zenbakian. Bertan, eta euskarak EAEn duen egoera zehazteko asmotan, hiru aldagai nagusi hartu dituzte kontuan: hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta euskararen erabilera.

Egileek diotenez, 2001eko zentsuko datuen arabera, elebidunak biztanleriaren herena dira (% 32,2), hamar urte lehenago baino 107.000 lagun gehiago. Erabilerari dagokionez, gero eta gehiago erabiltzen da euskara, oro har. Baina ezagutzaren eta erabileraren arteko jauzia gero eta handiagoa da. Euskaraz hitz egiteko gaitasunaren eta etxeko erabileraren artean dagoen alde hori ulertzeko, erabileran eragiten duten faktore nagusiak aztertu dituzte egileek artikuluan. Azkenik, aurrera begirako gogoeta egiten dute autoreek, esanez lehenatasun osokoa dela gazte elebidunek eskolan eskuratutako hizkuntza-gaitasuna lagunarteko harremanetan sendotzeko programak abian jartzeta.



Euskal Herriko lurralde guztietako herri-izendegiak egiten ari da Euskaltzaindia. Oraindik orain, Onomastika batzordeak

landu eta osoko bilkurak onartu berri duen **Gipuzkoako Herri Izendegia** aurkeztu da. Herrien euskal izenak eta gaur egun ofizialak direnak ageri dira lan horretan, bai eta herri-tarren izenak ere.

Aurreko urteetan, Akademiak hiru lurraldeotako herri-izendegiak onartu eta argitaratuak ditu: Lapurdikoa, Nafarroa Beherekoa eta Zuberoakoa.



Herrian herriko euskara biltzeko ahaleginetan, argitalpen berri bat dugu albiste: **Bergara aldeko hiztegia**, Juan Martin Elexpuru idazleak ondu duen lana. 800 orrialdeko ikerketa lan mardulean Bergara, Leintz-Gatzaga, Aramaio eta Oñatiko hizkerak aztertu ditu egileak. Ondorioz, 12.000 hitz eta milaka lokuzio bildu ditu Elexpuru, bai eta eskualdeko euskararen deklinabide, aditz eta sintaxiaren ezaugarriak zehaztu ere.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es